

Saharako bizitza ezagutzen

Bost egun pasatu dituzte bertan ▶ 2-3



Tolosako bidegorria egiten datorren astean hasiko dira

ZATI BERRIAK ▶ Hamalau zati berrik osatuko dute herria zeharkatuko duen sarea

DATUAK ▶ Lanek lau hilabeteko iraupena eta 629.000 euroko aurrekontua izango dute ▶ 4

KONTXI ZOZAIA ▶ IKA-KO IRAKASLEA

«Jendaurrean ari diren guztientzat da baliagarria»

Liburua egin dute arau berriekin ▶ 7

IMANOL GARCIA



Euskara sustatzeko plagintza aurkeztu dute 2005-2008 eperako

ZIZURKIL ▶ EBPN hainbat esparrutan zabaldu nahi du Udalak, aukerak bermatzeko ▶ 5

ALEGIA ▶

Gaztetxearen urtemuga ekitaldiz betea ▶ 6

honekin ziber ileapaindegiak
gaur bere atek irekiko ditu Tolosan.
Zatoz arratsaldeko **18:00**etatik aurrera eta oparitxo bat jasoko duzu!
Sta. Maria Plaza, 1
Tel.: 943 67 22 44



Orain Tolosan:
SHUYANA
Eskolapiotako Lorategiak, 3
20400 Tolosa • Tel.: 943.675.489

Laserraren plazerra probatu

Esperientziadun adituen eskuetan jar zaitez eta zure azalaren leuntasunaz goza ezazu.

- Gizon-Emakume depilazioa •
- Aurpegi eta Gorputzekoa •
- Ileak sortutako infekzio arazoak •
- Diagnostiko informatizatua doan •
- Bakoitzari egokitutako finantziaketa •

Depitotal

Shuyana, Depitotal sarearen parte da, bertan 200 depilazio zentru baino gehiago daude. www.depitotal.com

SAHARA (I) ▶



Sahararekin elkarbiziz

Bost egun igaro berri dituzte Laskorain ikastolako ordezkariak, Tolosako zinegotziak eta HITZAko ordezkariak Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideekin Saharako errefuxiatu kanpamentuetan

IÑIGO TERRADILLOS/
DCHERA (SAHARA)

Tosalaldea Sahararekin elkar- teko koordinatzailea den Joxe Manuel Agirrerren eskutik jaso zuten gonbidapena Yurre Peñagarikanok Tolosako udale- txeko zinegotziak, Kepa Goiko- etxeak Tolosako Laskorain ikastolako ordezkariak eta HITZAko kazetariak elkarteko- kin Saharara joateko. Bertan, hezkuntza proiektua jarri zu- ten martxan eta bidai honen bi- dez proiektu horretan parte hartzen duten Laskorain ikas- tolak eta Tolosako Udalak eu- ren begiz ikusi ahal izan dituzte egiten ari diren aurrerakun- tzak eta baita HITZA ere, dato- zen egunetan Tolosaldeko eta Leitzaldeko herritarrek ikuste- ko aukera izango duten bezala.

Gogotsu jaso zuten gonbida- penen, zirraraz eta baita ezja- kintasunez ere, ez baitzekiten oso ondo zein lekutara zihoa- zen ez eta zerekin aurkituko zi- ren han ere. Bazekiten, ordea, haiek bezala Tolosaldetik beste 13 lagun zihozazela eta Eus- kal Herritik 170 bat, guztiak udan hartzen duten haurra- ren etxera bisitan. Bitxikeria mo- duan, euskaldun hauen guz- tien artean arpegi ezagun ba- tekin aurkitu ziren, hain zuzen ere, Arantxa Gurmendi edo *Gonenkaleko Hortentxi* eta ikasle bizkaitar batzuen kasua ere bi- txia zen edo ez oso ohikoa behintzat, ikasturte amaierako bidai moduan joan baitziren Sahara aldera.

Horrela, beharrezko presta- ketak eginda, pasa den ostira- lean arratsaldean abiatu ziren Tolosatik bidai luze eta neke- tsuaren ondoren hurrengo eguneko goizaldean Saharako kanpamentuetara iristeko; tar- tean, autobusa, hegazkina, ka- mioia eta Land Rover autoa izan ziren erabilitako garraio- ak.

Behin hara iritsita eta eguz- kia irteten hasia zela, Euskal Herritik joandako jende guztia sakabanatu egin zen euren fa- miliak bizi ziren herri eta auzo-



Aiungo zazpi eskoletako batean, elkarteko koordinatzailea ikastola eta Udaleko ordezkariekin. I. TERRADILLOS

etara. Hiru ordezkarien kasuan Aaiun probintzia edo *wilayara* bidean jarri ziren eta han Dchera izeneko herri edo *dairara*. Herri horretako bigar- ren auzoan izango zituzten zain egun hauetan euren etxe- an hartuko zituzten familiako kideak.

Konturatzen hasiak ziren hu- rrengo lau edo bost egunetan ikusiko zuten egoera nolakoa izango zen, eta batez ere ez zuela inolako antzarik izango bizi garen herritik. Orain, han- go herritarrek ezagutzea gera- tzen zen.

Wali izena zuen maisua eto-

rri zen bila, bera baitzen bere etxeko atean zabaldu zituen fa- miliako kideetako bat eta hu- rrengo egunetan hiruen ardu- ra izango zuena. Gaztelaniaz egiten du Wali bestea hainbat sahararrek bezala Kubara uni- bertsitate ikasketak egitera jo- ana delako, beraz, berarekin hartu- emana errazagoa izango zen. Ez zen, ordea, bere fami- lian gaztelaniaz egiten zuen bakarra, Brahim, bere anaia gazteena ere egiten zuen udan Extremadurako (Espai- nia) familia batean izana baita.

Haima (kanping denda han- di bate modukoa) bat, sukal-

dea, gela eta bainu batez osa- tzen da normalean Saharako familia baten etxebizitza. Hai- metan igarotzen dituzte egune- ko ordu gehienak, etzanda, tea hartuz eta berriketan.

Haima horietako batean ziren familiako lehenengo aur- keizpenak, Wali Galia familia- ko ama eta Aicha, Meity, Toufa eta Edziza bere arreba aur- keztu zitueneko. Familiako gainerakoak Mohamed aita *tailer* batean langile, Abdalahi er- diko semea eraikuntzan langi- lea eta Fatma eta Mohamed Meityren seme-alabak.

Koltxoietan jezarri eta manta

bat jartzen dizute soinean ero- so eta bero egoteko; mantak oso garrantzitsuak dira saha- rarrentzat, gauean hotz handia egiten du eta babesteko modu bakarretakoa horixe dute, eta bestalde, Wali otsailean ezkon- duko zela jakin ondoren, 20 manta, armario bat eta gamelu bat bildu behar zituela ezkon- tza egunerako aipatu zuen, be- raz, garrantzitsuak diren sei- nale. Tea prestatzen dute etxe- ra sartzeko gonbidapen bakoitzean, prozesu luzea da- raman ekintza izaten da hau eta ezinbestekoa sahararren egunerokoan. Hiru hartzen dira bata bestearen jarraian, amodioa bezain gozoa, bizitza bezain garrantzitsuak eta heriotza bezain suabea. Oso gozoak hi- rurak ere, eta azukrea atsegin dutela eta euren dietan behar- rezko zaiela konturaten zara.

Zalantzarik gabe, behar han- diak dituzten pertsonak dira eta hara joan gabe ezin honen ideia zehatzik egin. Iristen zaiz- kien laguntzetatik bizi dira gu- txi gorabehera, dela janaria, erropak edo bestelakoak. De- serto erdian kokaturik lurretik ezin fruiturik atera saiatu diren arren. Haurrak, guztiak eskola- tuak, eskolei berrikuntza han- diak egin direlarik eta oraindik ere egin beharko direnak, bes- teak beste, Tolosaldea Sahara- rekin elkartari esker.

Bost egun hauetan eskolak bisitatu ondoren, gobernado- rearekin izan, protokolo naga- siarekin, familiakoekin picni- cean, merkatuan eta abar luze bat igaro eta gero errepikatze- ko gogoz itzuli dira irakaslea, zinegotzia eta kazetaria. Hiru- rentzat ere lehendabiziko aldia izan da, baina nahikoa kontu- ratzeko hezkuntzari eta fami- liari ematen dioten garrantziaz, hemengo haurrak edozertaz kezkatzen diren bitartean han edozerrekin konformatzen di- rela dauden egoeran egonda...

Pertsona jatorrak eta irekiak dira, segituan gerturatzen bai- tira kanpotik datozenengana agurtzera eta nola zauden gal- detzera eta bide batez haurrak

iragarki laburrak ▶

Vital Kutxa. 70 lanpostu libre. Sarrerak laster. Matrikulazio irekia. Informazioa doan. 943 65 01 93 telefonora deitu.

Haur Hezkuntza. Plaza libreak

haurtzaindegi publikoetan, haur eskoletan. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Gidariak. Laster sarrerak udaletan eta Eusko Jaurlaritzan. Informazioa

doan. 943 65 01 93.

Sukaldari laguntzaileak. Plaza libreak eskoletan, egoitzetan, Eusko Jaurlaritzan. 943 65 01 93 telefonora deitu.

Administrazio laguntzaileak.

Laster sarrerak udaletxe hauetan: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta.

Informazioa doan 943 65 01 93.

Peoiak. Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltsuak. Plaza libreak erakunde publikoetan. 943 65 01 93.



Saharako errefuxiatuen kanpamentuak. Haima batez eta gela desberdinez osatzen dira familien etxebizitzak. Familia guztiek etxebizitza berdina dute eta itxura antzekoa dute herri desberdinek. Desertu erdian, inolako errepiderik gabe, eguzkia nagusi izaten da egun gehienetan sahararren bizitzan. I. TERRADILLOS



Sahararrak. Eskuzabalak dira eta dena emateko prest beti. Pozik bizi badira ere, beraien lurrekin pena handia dute, baina baita itxaropena ere, noz baita Sahara libre izango denaren zain. I. TERRADILLOS



Eskoletako zuzendariekin. Afari batean bilduta, elkarteko koordinatzailea, emaztea, Tolosako udaletxeko zinegotzia eta Laskorain ikastolako ordezkaria eskolak ikusi eta gero. I. TERRADILLOS



Opari ugarirekin bueltan. Eramandakoa baino gehiagorekin bueltatzen omen da hara joaten dena eta horrela dela ikusi dute hiru ordezkariak, bertako hainbat produktorekin etorri baitira. I. TERRADILLOS



Aiungo gobernadorearekin. Tolosaldea Sahararekin elkarte ko koordinatzaileak bertako gobernadoreari bere proiektuaren nondik norakoak azaldu zizkion. Honek eskertu zuen elkarte egiten ari den lana eta gaur egungo egoera eta beharrak deskribatu zituen. I. TERRADILLOS

badira karamelu bila. Eta esku-zabak, aipatu bezala, dutena eta ez dutena emateko gai direlako; bertan igarotako egunetan ahal dutena egiteko gai direla gonbidatuak eroso eta etxean bezala sentitzeko konturatzeko zara. Eta etxean bezala, familiako amak hiru seme-alaba gehiago zituela aipatu

baitzuen. Sentimenduz beteak dira, gustura bizi arren eta dutena nahikoa iruditzen bazaie ere arantza baitute bihotzean sarturik; noski, euren lurretatik (Saharatik) at bizi dira hasieran Espainiako kolonia izandakoa 1975. urtean honek Maroko eta Mauritaniari eman ondoren saharar herritarrek

orain dauden Aljeriako Tinduf hiriaren ondora joatera bultzatu eta gero. Sahara libre batekin amesten dute, eta beraiek behin eta berriz aipatzen dute, eta euskaldunen egoerarekin ere gonbaratzen dute eta zerkusia dutela aipatzen dute, bi lurren arteko eztabaida baitute.

Gure laguntzaren beharra dutela argi dago, baina guk ere asko dugu beraiengandik jasotzeko eta ikasteko; alde batekin, gure kulturaren erdi galdurik ditugun familia arteko harremanak eta erlazioei berebiziko garrantzia ematen dietelako eta bestetik, gauza gutxirekin zoriontsu bizi direlako eta du-

ten hori eta gehiago emateko gai direlako

Pentsatzeazten duten kontuak dira, batez ere orain, baina urte osoan zehar ere, hasiak baikara Eguberrietako opariak erosten, inolako beharrik gabe, diru txartela atera eta xahutzeari ekinez.

Bihar. Eskoletako proiektua.

hitza lagunena
txokoa

▶ **ARGIAK** argitaratutako **NAIROBITARRA MUNDUKO IPUINAK (0-8 urteko haurrentzat)** bildumaren harpidedun laguntzaile irabazlea:

JOKIN TOLOSA AGIRREZABALA (Amezketala)

Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'SHALL WE DANCE' filmerako 2 sarreraren irabazlea:
GEMA IRAOLA ELOLA HITZaren harpidedun laguntzaile bidegoiandarra.

Aspek antolatuta astelehenean hilak 13an 16:30ean **Beotibarren** jokatu diren pilota partiduetarako bina sarreraren irabazleak diren harpidedun laguntzaileak:

- JON JAUNARENA ETXEKOLONEA (Leitza)
- J.IGNACIO ESNAOLA ARROSPIDE (Leaburu)
- M.CARMEN MUÑAGORRI SORARRAIN (Belauntza)

CHAFEE - NALDA III.a / BALEZTENA - ARROYO II.a

MTZ.DE IRUJO - APEZTEGIA GONZALEZ - GOÑI III.a

OTAEGI - BERNA / ESNAL - AUXKIN

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

TOLOSA ▶

Musika Eskolako metal eta egurra taldekoen saioa

Eduardo Mokoroa Udala Musika Eskolako metal eta egurra taldeko ikasleek kontzertua eskainiko dute gaur, 19:00etan, Pablo Gorosabelgo entzutegian. Dardarka, Egurra, Totekin, Haizea eta Diapason taldeek hartuko dute parte emanaldian.

IBARRA ▶

Ibarratik Iruñera nor lehenago iritsi apustua

Haitzetan Raju mendi taldeak apustu berezi baten berri eman du, Ibarako Ibon Aranaldek eta Oartzungo Xabier Baintetarak elkarri egin dioten desafioa: Ibarratik Iruñera nor lehenago iritsi. Biak 07:00etan aterako dira gaur Ibarratik, eta Iruñeko Sarasate plazara lehenago iristen den korrikalariak irabaziko du lehia. Bi parte-hartzaileak bide desberdinak aukeratu dituztela azaldu dute mendi taldekoek: oartzuarrak mendiz egingo du bidea, eta ibartarrak errepedez. «Lagunarte eta adiskidetasun giroan sortu da dena». «Euskal apustu batek behar duen bezala», afari batekin emango diote amaiera; Ibon Aranaldek berak presatatutako babarrunekin.

EUSKARA ▶

Autobusak EHEren urtemuga jaialdira

Euskal Herrian Euskaraz-ene (EHE) 25. urtemuga dela-eta hilaren 18an Iruñeko Anaitsunaren egingo den jaialdira joateko autobusak antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak. Izen-ematea bertan, 17:00etatik 21:00etara.

TOLOSA ▶ HIRIGINTZA

Hamalau zati berrik osatuko dute herriko bidegorri sarea

Datorren astean ekingo diete lanei, eta lau hilabeteko iraupena izango dute



Joan den irailan egindako Pedalaren Eguna, San Frantziskon; kale horretan bidegorria jarriko dute. G.AZKUE

LEIRE MONTES

Duela bi urte ekin zien Udalak bidegorri sarea eraikitzeke lanei. Hala, ibaiaren ondoko lehen bide zatiak egin zituen: Laskorain ikastolatik hasi eta suhiltzaileen parkerainokoa, hain zuzen ere. Iaz, berriz, Belate pasealekuan jarri zuen bidegorria. Tolosa Txirindularien Bide Sare Planaren barruan sartu zen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bidegorri sarea modu egoki eta zabalagoan diseinatzeke eta lanak aurrera eramateko laguntza handiagoa eman zuen orduan. Aurtun, hamalau zati berri egitea aurreikusitako Udalak, eta datorren astean lanak hasiko direla espero du. «Herritarrek bizikletan ibiltzera bultzatzea» da bidegorri sarea eraikitzearen helburu nagusia.

Joan den ekainean Udalak Bidegorriaren Egitaritza Proiektua idazteko eskatu zion Injelan enpresari, eta hori oi-

narriztat hartuta egin du esleipena. Hain zuzen ere, urria amaieran esleitu zituen eraikuntza lanak Gobernu Batzordeak, eta Construcciones Iruña eta Construcciones Donosti enpresen arteko Aldi Baterako Enpresen Elkarteari (ABEE) eman zizkion. Guztira, 629.000 euro (105 milioi pezeta inguru) inbertituko ditu Udalak sare berri honetan. Lau hilabetetan lanak amaitzea espero dute.

Bidegorrien eraikuntza lanak egiteak «aparteko jardueraren bidez ez» duela eskatzen argi utzi nahi du Udalak: «Ez du inongo zerbitzurik modu nabarmenean kaltetzen, nahiz eta batzuen kokapena aldatu eta hustubide batzuk, argiteri publikoko zenbait farola, aulki eta zirkulazio seinale batzuk ordeztatu berrira egokitu beharko diren».

Irigarritasun Planaren arabera, proiektuak hamalau zatiren nondik-norakoak zehazten ditu; bidegorriaren gaineko pasabideak jartzea ere jasotzen du. Larramendi kaleak izango du bideetako bat: San Joan kaletik hasi eta Arramele zubiraino, bizikleta-espaloia gisa eraikiko dute bidegorria. Era horretara, Arramele zubiraino egingo dute bigarren bide zatia. Hirugarrena, berriz, Felipe Gorriti kalean: bertan babesturiko eta bi norabideetako bidegorria egitea aurreikusten dute; eta, hasieran, Belate pasealekuaren gurutzagunean, oinezkoentzako gaineko bi pasabide eraikiko dituzte. Planteamendu berarekin egingo dute

Gorosabel kaleko bidegorria ere, eta Trianguloan jarriko dute gaineko pasabidea.

San Frantzisko kalean, beste bide zati eraikiko dituzte: lehena bizikleten espaloia bezala planteatzen du proiektuak, errepedetik gertuen dagoen zuhaitz ilararen eta errepedearen artean; gaineko lau pasabide ere izango ditu bideak, hiru Foruen etorbideko bidegorriaren, eta bestea bide zatiaren amaieran. Bigarrena, berriz, San Frantzisko kalean bertan eraikiko da, bizikleta espaloia gisa; zatia hasieran gaineko bina pasabide jarriko dituzte. Amaitzean dagoen biribilunean baina ere jarraituko du bidegorriak, baina bertan bizikleten eta oinezkoen espaloiek bat egingo dute; bide zati horretan galtzadarriz egindako zola berezia proposatu dute.

Araba etorbidean, eta egungo lanei jarraipena emanez, beste bi bidegorri zati egingo dituzte: bizikleta espaloia modukoak izango dira biak, eta zatien hasieran eta amaieran gaineko bina pasabide jarriko dituzte. Amaitzean dagoen biribilunean baina ere jarraituko du bidegorriak, baina bertan bizikleten eta oinezkoen espaloiek bat egingo dute; bide zati horretan galtzadarriz egindako zola berezia proposatu dute.

Hurrengo zatiekin osatuko dute herriko bidegorri sarea: SAMEko zubiko zatia, bizikleta espaloia moduan eta amaieran oinezko gaineko pasabidearekin; ibaiaren pasealekuko, bizikleta espaloia gisa; Iurreamendi ibiltokiaren luzapenean Araxes ibaiaren gainerainoko zatia, bizikleta espaloia; Iurreamendi eta Laskorain ikastolako bidegorriarekin lotuko duena, hasieran bizikleta espaloia

ZENBAIT DATU ▶

14 zatiak.

- ▶ Larramendi kalean, San Joan kaletik Arramele zubiraino: bizikleta espaloia.
- ▶ Arramele zubia: bizikleta espaloia.
- ▶ Felipe Gorriti kalea: babesturiko eta bi norabideetako bidegorria, eta oinezkoentzako gaineko bi pasabide.
- ▶ Gorosabel kalea: babesturiko eta bi norabideetako, gaineko pasabidea Trianguloan.
- ▶ San Frantzisko kalea, bi zati: bat bizikleta espaloia, errepedetik gertuen dagoen zuhaitz ilararen eta errepedearen artean; lau gaineko pasabide, hiru Foruen etorbideko bidegorriaren, eta beste bat zatia amaieran.
- Beste bat kalean bertan, bizikleta-espaloia, eta gaineko pasabide bat hasieran.
- ▶ Araba etorbidea, bi zati: bizikleta espaloia motakoak, eta gaineko bina pasabide hasieran eta amaieran.
- ▶ Araba etorbideko biribilunetik baina, aurrera: bizikleten eta oinezkoen espaloiek bat egingo dute.
- ▶ SAMEko zubia: bizikleta espaloia, eta oinezkoentzako gaineko pasabidea amaieran.
- ▶ Ibaieraren pasealekua: bizikleta espaloia.
- ▶ Iurreamendi ibiltokiaren luzapenetik Araxes ibaiaren gaineraino: bizikleta espaloia.
- ▶ Iurreamenditik Laskorain ikastolara: bizikleta espaloia hasierako zatian, eta babesturiko bidegorria amaieran.
- ▶ Laskorain ikastolatik Amarozeke biribiluneraino: bizikleta espaloia.
- Epea. Lau hilabete.
- Aurrekontua. 629.000 euro (105 milioi pezeta inguru).

moduan eta babesturiko bidegorria bukatzen; eta Laskorain ikastolatik Amarozeke biribiluneraino joango den zatia, bizikleta espaloia gisa.

Udalaren esanetan «proiektuak herritarren sentiberatasuna eta ongizatea aintzat hartzen ditu, betiere herriko trafikoa murriztu eta, ondorioz, bizikletaren hobetzen lagunduko duen garraio mota bultzatuz».

USABALGO LASKORAIN IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEA

Bazkide-Lagun, agur: Urteko Ohiko Batzar Orokorreari dei egiten dizut, Laskorain Ikastolan, Usabalgo egoitzan burutuko dugunera. Batzar hau abenduaren 16an, osteguna, izango da arratsaldeko 19:30ean hirugarren deialdian. (lehen deialdia 18:00etan eta bigarrena 18:30ean).

- Bertan jorratuko diren gaiak honako hauek dira:
- 1.-Estatutuen aldatzea (ikus oharra).
 - 2.-Aurreko urteko akta irakurri eta onartu.
 - 3.-Balantzea eta Aurrekontua. Kuotak.
 - 4.-Ikasturteko egitasmoa eta emaitzak.
 - 5.-Partaide berriak Juntan.
 - 6.-Akta onartzeko bi kide izendatzea.
 - 7.-Galdera eta eskeak

Oharra: Estatutuen aldatzen xehetasunak eta horien arazoak jasotzen dituen txostena ikastolako edozein idazkaritzetan bazkide guztien eskura dago. Tolosan, 2004ko abenduaren 1ean • Batzordeko Lehendakaria

ZIZURKIL ▶ EUSKARA

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aurkeztu dute 2005-2008rako

Hainbat esparrutan neurriak hartuko ditu Udalak euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko



Jaxone Agirrezabalaga, Patxi Goenaga, Maria Angeles Lazkano eta Ainhoa Larrea, prentsaurrekoan. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Ziba batean, euskara magalean lelopean aurkeztu zen herenegun arratsaldean Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) Zizurkilgo datozen lau urteetarako. Patxi Goenaga Hizkuntza Politikarako sailburordea, Maria Angeles Lazkano Zizurkilgo alkatea, Jaxone Agirrezabalaga Euskara eta Kultura zinegotzia eta Ainhoa Larrea Euskara eta Kultura teknika izan ziren aurkezpen-mahaian eta zenbait herritar ere agertu zen. Gipuzkoako Foru Aldundiak ere planean parte hartzen du, baina erakunde honetako ordezkariak ezin izan zuen azaldu. 2005 urtean 165.000 euroko aurrekontua izango da. Oraindik ez badira gauzatu ere, Udala, Eusko Jaurilaritza eta Foru Aldundiak emango dituzte beharrezko diru laguntzak.

EBPN Eusko Jaurilaritzak sortutako plana da. Legebiltzarrak onartu zuen eta hainbat herritan martxan dago. «Euskal Autonomi Erkidegoan hizkuntza politikak gidatzen lagundu behar digun tresna bat», azaldu zuen Patxi Goenagak. «Plana irekia da eta osatzen joan be-

har da». EBPNren helburu nagusia euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzea da, behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakiz eta bultzatuz. Neurriok esparru ezberdinetan bultzatuko dira: bai pertsonalean, bai sozialean, bai ofizialean. Euskararen berreskurapen osoa lortzeko hizkuntzaren aldeko urratsak areagotzea.

Hurrengo lau urteetan 83 neurri martxan jarriko dira Zizurkilgoan, urte urte lehentasunak zehaztuko direlarik. Euskararen transmisioari dagokionez, irakaskuntzaren arloan eskola barruko euskararen garrantzia azpimarratuko da, eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza euskara izatea eta euskara-batzordeak osatuko dira eskolaz kanpoko erabilera-esparruekin zubiak egiteko.

Euskalduntze eta alfabetatze esparruan, eragileak eta taldeak identifikatu ondoren ikastaroak eskainiko dira. Bestalde, diru laguntzak eskainiko dira euskara ikasteko eta motibazio eta sentsibilizazio kanpainak egiteko.

Familiaren esparruan euskararen transmisioa bermatzeko

ko, gazteengan bikote-hizkuntza euskara izateko ekintzak burutuko dira: familia osatu berriei dagokionez, euskara haurren lehen hizkuntza izateko ahalegina egingo da.

EBPNren beste lan esparru bat euskararen erabilera izango da. Hainbat eremutan hartuko dira neurriak hizkuntza erabiltzeko. Administrazioan, esaterako, euskara zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu nahi da. Hizkuntza irizpideak finkatuko dira bai aholkularitza kontratuetan, bai diru laguntzetan eta baita langileen kontratazioetan ere. Bestalde, Udalaren Erabilera Normaliza-

EUSKARAREN ELIKADURA ▶

Corpus-plangintza. Herriko hizkuntza-paisaia eta toponimoak normalizatu; merkatal guneetako hizkuntza-paisaia euskararen presentzia txukundu.

Komunikabideak. Laguntza emateko irizpideak finkatu euskararen erabilera bultzatzearen.

Liburugintza. Udal liburutegia era egokian hornitu.

Kulturugintza. Euskarazko kultur plangintza diseinatu; festa eta ekintzetan euskararen presentzia bermatu; Udalaren kultur guneetan materialak eguneratuta izan.

tzeko Plana garatuko da. Teknologia berriei dagokionez, euskarazko produktu eta zerbitzuak eskainiko dira. Aisialdiaren esparruan, begiraleen hizkuntza-trebakuntza bermatu nahi da eta inguru hezitzailean aisialdi-zerbitzuak euskaraz eskaintzea. Lan munduan ere, hizkuntza politika antolatzeko neurriak hartuko dira enpresetna euskararen erabilera areagotzeko. Kirolaren inguruan, kirol taldeei materiala euskaraz eskainiko zaie eta sentsibilizazio kanpainak egingo dira.

Euskararen elikadura, hau da, hizkuntzaren aberastasuna eta kalitatea bermatzeko ere neurriak hartuko ditu Udalak.

EBPN aurrera ateratzeko, giza baliabideen garrantzia azpimarratu zuten prentsaurrekoan. Udaleko Euskara Zerbitzuaz gain, Eusko Jaurilaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek ere ahalbidertuko dute plana gauzatea. Bestalde, Euskararen Aholku Batzordea eratuko da. Bertan parte hartuko dute herriko taldeen ordezkariak eta euskalgintzan aritzen diren pertsonak. Bere funtzioa EBPNren neurriak finkatzen laguntzea izango da.

IRURA ▶

Babarrun bazkarirako txartelak salgai

Babarrun Astean lehenengo eta bigarren postuan gelditu ziren Irurako bi base-errietako —Jauregiberri eta Laskibar— senar-emazteei omenaldia eginez, babarrun bazkaria antolatu du Udalak. Hilaren 19an, igandea, izango da, 14:00etan, Gazte Alaiak elkarteak. Txartelak salgai daude zahar etxean eta Amets estankotan. Hel-duak 15 euro eta 14 urtetik beherakoek 10 euro ordaindu behar dituzte.

ZIZURKIL ▶

Hamabi orduz kirolean eta VIII. Gau Krosa

Gaur egun guztian kirolean ariko dira Zizurkilgo haurrak: zaldiak, rokodromoa, pilota, halterofilia,... Ondoren, Gau Krosaren VIII. edizioari irteera emango zaio 22:30ean.

ANOETA ▶

Begiraleak behar dira Gabonetako ludotekarako

Gabonetako ludotekarako begiraleen bila ari da Anoetako Udala. 18 urtetik gorakoek curriculum-a eraman dezakete hilaren 17a baino lehen udaletxera.

ZUZENKETA ▶

Abenduaren 5eko HITZAN gaizki azaldu ziren Adunako Zabale landetxeak eskaintzen dituen zerbitzuak. Gaur egun bi logela ditu, bakoitza bere bainugelarekin, eta sukaldea.

ARAMBURU
Salgai (Irura), 100m²-ko pisua Nagusia kalean, Bejerra aukeran.
Salgai (Tolosa), Pisu handia Gorosabel 40ean.
Salgai (Tolosa), Pisu altua igogailuarekin Nafarroa Etorbidean, 44.000.000 pta.
Salgai (Tolosa), Pisu igogailuarekin Larramendi kalean, 30.000.000 pta.
Salgai (Tolosa), Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².
Alokatzeko (Tolosa), Lokal komertziala Errementari kalean.
Alokatzeko (Tolosa), Garajeak abakutzen dira Tolosako leku ezberdinetan.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

"GURE BASERRITARREN PRODUKTUEZ OSATURIKO SASIAK AUKERAN"

LUR-LAN

LUR-LAN Baserritar Elkarte
Herandorena kalea, 11 • 20159 ZIZURKIL
Tel.: 943 69 20 54 • Faxa: 943 69 44 83
Posta elektronikoa: lur@euskalnet.net

ALEGIA ▶ KIROLA

Bizikleta martxa eta ginkana, bihar

Bizikletaz herria zeharkatu ondoren, Ikaztegiatarainoko buelta egingo dute



laz gazteto askok hartu zuten parte ginkanan. HITZA

O. ESKITXABEL

Bihar bizikleta martxa eta ginkana antolatu ditu Languarre elkarteak.

Herriko plazatik 10:30ean abiatuta herriko kaleak zeharkatu ondoren, Ikaztegiatarainoko lehenengo biribiluneraino joango dira txirrindulariak; amaiera herriko plazan izango da: «Haurrek ezezik martxa horretan gurasoek ere parte hartzea nahiko genuke», azaldu dute antolatzaileek.

Ondoren, ginkana egingo

dute plazan: «Iaz ere egin genuen eta jendea oso gustura geratu zen», azaldu du Jesus Mari Otañok, Languarreko elkartearen lehendakariak.

Ginkana horretan, Oriako txirrindulari taldeko gazteak izango dira «ginkanaren inguruko gorabeherak azaltzeko».

Ginkana amaitzean, parte-hartzaileen artean, hainbat opari zozketatuko dituztela azaldu dute antolatzaileek.

Bihar, «ume festa polita» sortzea espero dute antolatzaileek.

ALBIZTUR ▶ MENDIA

Diapositiba emanaldia, Oartzabalaren eskutik

Nepal, Txina, Pakistan eta Tibeteko argazkiak izango dira ikusgai astelehenean

O. ESKITXABEL

Juanito Oartzabal mendizale arabarrak *Hamalau zortzimitako* diapositiba emanaldia eskainiko du etzi, astelehena, abenduaren 13an.

Oartzabalek igotako zortzi

mila metroko hamalau mendien inguruko diapositibak azalduko ditu. Nepal, Txina, Pakistan eta Tibeteko argazkiak izango dira ikusgai.

Diapositiba emanaldia 19:00etan izango da Kultur Etxean.

ALEGIA ▶ GAZTETXEAREN URTEURRENA

Askotariko ekitaldiak 17. urteurrena dela-eta

Urteurrenaren harira antolatutako ekitaldiekin agurtuko eta hasiko dute urtea Alegiako Gaztetxean

OLAIA ESKITXABEL

Alegiako Gaztetxearen 17. urteurrena dela-eta ekitaldi ugari antolatu dituzte. Hilabete eta erdiz luzatuko da urteurrenoko egitaraua. Abenduaren 2an diapositiba emanaldiarekin eman zieten hasiera urteurrenoko ekitaldiei eta urtarrilaren 14a bitarte askotariko ekitaldiez gozatzeko aukera izango da.

Musika emanaldiak, ikus-entzunezkoak eta filmak dira, batez ere, antolatutako ekitaldien hiru ardatzak. Talde ezagunen kontzertuak antolatu dituzte. Gaur, esaterako, Nunca jamas eta Inoren ero ni eta DJ Waterpartys.

Pirineoetako, Alpeetako eta Nepaleko argazkiak, Jaizkibelgo superportua, Iruñeko Gaztetxearen desalojoa, erraustegiak... gai horiek guztien inguruko ikus-entzunezkoak eskainiko dituzte.

Asteartero, bestalde, urte guztiko dinamika jarraituz zine-kluba egongo da.

Ekitaldi horietaz gain, antzezlanak, ikuskizun umoretsua, ezusteko festa... izango dira. Urteroko ohiturari jarraituz, *play-back*-a egingo dute aurtengo ere; urtarrilaren 7an izango da eta Gaztetxeo kideek «jendea animatzeko» eskatu dute.

URTEURRENEKO EKITALDIAK ▶

GAUR

Gaean. Zahagi ardoa; Nunca jamas, Inoren ero ni eta DJ Waterpartys.

ABENDUAK 14

21:30. *El abrazo partido* filma.

ABENDUAK 16

21:00. Jaizkibelgo superportuaren inguruko ikusentzunezkoa eta hitzaldia.

ABENDUAK 17

Gaean. Zahagi ardoa; ondoren, Keike eta Kautia taldeak.

ABENDUAK 19

19:00. *El filling es asi* antzezlanak, Tearto taldearen eskutik.

ABENDUAK 20

21:30. Iruñeko gaztetxeo desalojoari buruzko DVD-a.

ABENDUAK 21

21:00. *21 gramos* filma. AEB; Zuzendaria: Alejandro Gonzalez.

ABENDUAK 23

21:00. Alpeetako diapositibak.

ABENDUAK 24

01:00. Ezusteko festa.

ABENDUAK 28

21:30. Quentin Tarantinoren *Kill Bill 2* filma ikusgai.

ABENDUAK 30

21:00. Nepaleko diapositibak.

URTARRILAK 4

21:30. *Mar adentro* filma.

URTARRILAK 7

Gaean. *Play-back*-a.

URTARRILAK 11

21:30. *Machuca* filma.

URTARRILAK 13

01:00. Erraustegiari buruzko DVDa.

URTARRILAK 14

22:30. Iraola eta Pagadi bikotearen ikuskizuna.

BALIARRAIN ▶ GIZARTEA

Biasterira irteera antolatu du Udalak datorren abenduaren 19rako

Izena eman nahi duten galdetuz deituko dute gaur etxetara

O. ESKITXABEL

Biasterira (Laguardia) bidaia egingo dute baliarraindarek datorren abenduaren 19an. 08:30ean abiatuko dira herriko plazatik; 11:30ak aldera, berriaz, bisita gidatuarekin Biasteri ezagutzeko aukera izango dute interesa dutenek. 13:00etatik 14:15era, Biasteri-

ko bodegarik berrienean, Ysiur bodegan, izango dira; bertan hiru ardo motaren dastaketak egiteko aukera izango dute herritarrek.

Bazkaltzera, Las Postas jate-txera joango dira: helduek, piperrik, bisita gidatuarekin Biasteri ezagutzeko aukera izango dute interesa dutenek. 13:00etatik 14:15era, Biasteri-

dute aukeran. Haurrentzat, berriaz, krocketak, xerra eta postrea izango dira. Arratsaldean, Gas-teizen emango dute.

Bidaia salneurria 27 eurokoa izango da helduentzat eta 12koa haurrentzat.

Udaletxetik gaur deituko dute herriko etxetara bidaia izena eman nahi dutenengatik galdetzen.

NATURAL - NATURALAK

• Era naturalean eginak
• Gaztak, yogurtak, txorizoak urdaiazpikoak, odolkiak eta beste hainbat produktu.

Mahala

BASERRIKO PRODUKTUAK

Mahala Baserris - 20491 LEABURU • Tel.-Faxa: 943 673 499 • Tel. Mug.: 689 805 633

LEITZA ▶

Lehendabiziko
itzuliko azken
partidua gaur
du Aurrerak

Mikel Barberiak
Lekunberriko Beti
Kozkorren jokatu du
aurrerantzean

J. ASTIBIA

Baztan taldearen aurka eta kanpoan, bihar igandea jokatzekoak baziren ere, gaur arratsaldera aurreratu dute partidua, baztandarrek hala eskatuta, HITZARI adierazi diotenez. Horrela, ligako lehendabiziko itzuliri amaiera emateko, Elizondon dute partidua, gaur, 15:30etik aurrera.

Jakin izan ahal denez, gogotsu joanen omen dira gainera. Izan ere, oraindik aurreko asteburuko jardunaldian eginkoa buruan dutela doaz, San Esteban taldeari, 6 eta 0 irabazi baitzioten: partidu gozoa izan omen zen, erabateko kiroltasunez jokatuakoa, arbitroak ez omen zuen txartelki ateratzeko inolako aitzakiarik izan behintzat eta gol jaialdi ikusgarria erakutsi omen zuten mutilek. Horrela, Barberiak (Enekok), Azpirozek eta Arangoak gol bana sartu bazuten, hasi ez hasi, Olanok hiru tanto igorazari zituen markagailura, bere lehendabizikoak denboraldi honetan. Beraz, gogoz ez ezik, indarrez ere jokatzeko moduan daude Aurrerako jokalariek.

Bestalde, zuzendaritzatik adierazi dutenez, Mikel Barberia Beti Kozkor taldera joan omen da jokatzeko aurkerak frogatzeko asmoz.

LEITZA ▶

'Orain bakea,
orain herria'-ren
aurkezpena

Gaur, 19:00etatik aurrera, Leitzako zinema aretoan, Batasunak *Orain bakea, orain herria* proposamenaren aurkezpen-ekitaldia egingen du, Joseba Permachek eskutik. Azaroaren 14ean Anoetako Belodromoan plazaratu zuen konponbiderako proposamenaren herriz herriko hitzaldiak burutzen ari dira, horren berri lehen eskutik emateko asmoz.

KONTXI ZOZAI ▶ LEITZAKO IKA EUSKALTEGIKO IRAKASLEA

«Jendaurrean ari diren
guztientzat baliagarri da»

Eginahalaren eginahalez, Euskaltzaindiaren arau berriak ikasteko bide erraza jarri du eskura euskaltegi ttiki honek



JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Leitzan ez eze, Goizueta, Larraun, Lekunberri, Araitz-Betelu, Imotz eta Basaburuan diharduen Leitzako IKA euskaltegi irakasleek, Agurtzane Gartziaerenak, Aitziber Bergarak, Amaia Astibiak, Kepa Mateorenak eta Kontxi Zozaiak, *Euskararen araugintza: arauak eta hiztegi batua* argitaratu berri dute. Honen inguruan Kontxirekin aritu da jolasan HITZA.

Noiz sortu zen liburuaren ideia? Zergatik?

Duela 3 urte eta gure beharrak ase nahian. Batez ere gol urratsak erakusten direnean, irakasleoi ere zalantzak sortzen zaizkigu eta horiek argitzeko koadernoak egin eta izaten ditugu. Material hori txukunduz, ideia polita izan zitekeela iruditu, ausartu ginen.

Zer ezaugarri ditu liburuak?

6 zati ditu gramatika aldetik (idazkera, sintaxia, ahoskera, hiztegi batua...) eta 7. a. testa. Sail bakoitzean, arau gramatikalen azalpenen laburpenak datoz eta dagozkien ariketak gain, horien soluzioak ere bai.

Ebazpenak ere bai, beraz?

Bai, sail bakoitzean. Bukaeran, berriz, liburu guztiaren testa heldu da, liburu osoaren ebaluaketa egiteko moduko 210 galderarekin. Hala ere, sail bakoitzak badu bere ebaluaketa.

Norentzat egin duzue?

Euskaraz irakaskuntzan dabilen guztiarentzat. Hori da helbururik zuzenena. Baina jendaurrean ari diren guztientzat ere oso baliagarri da, idazterakoan eta hitz egiterakoan, Euskaltzaindiaren arau berri eta ereduak ematen dituelako —orain arte, ez zegoen horrelako lanik—. EGA atera nahi dutenez, beharrezko ere balitzateke.

Nola egin duzue lan hau?

Ariketa asko, gehienak, guk gero asmatutakoak dira eta bestelako bibliografiatik hartuta-

koak ere badira, HAEE-renak eta. Kasu hauetan, erraztasuna besterik ez dugu izan. Eta egituraketari dagokionez, egin ahala atera izan dira eta txertatuz joan gara.

Lan handia beraz?

Bai, izugarrikoa. Eta zuzenke-ta ere lan handia izan da, ordu asko igaro ditugu horretan guk eta, Kanpioneko eta Gasteizko lagun batzuk ere. Eta gero, idatzita dagoelarik, liburu formatora igarotzeak ere, denbora franko eraman digu: urte bete. **Salgai dago bada. Eta Duran-gon ere izan zarete.**

Bai, eta pila bat saldu da. Aurrereko egunean agortu egin zen, 2.ean ere bai eta baita 3.ean ere. Oso harrera ona izan du. Orain liburudendetatik eta, eskariak iristen hasi zaizkigu, hedapena ere geroen esku hartu baitugu. Oso gustura gaude. **Zenbat ale atera dituzue?**

1.500 ale.

Laguntzarik izan duzue?

Nafarroako Gobernuak ale batzuk erosi dizkigu, bere zentroetan banatzeko, eta horixe izan da «laguntza» bakarra. **Euskaltegirako arnasa izanen da?**

Liburuarekin aterako dena, euskaltegiaren biziraupenerako oso beharrezko izanen da. Gainera, laguntzen murrizpen arrisku horrekin, are gehigo.

Geroari begira?

Halako euskaltegi ttiki batetik, halako proiektu handia ateratzea beti da harrotzekoa eta behin bideak ikasita... Oso interesgarria izan daiteke, adibidez, erregistro ez-formalak aztertu eta landuz zerbait egitea, lagunarteko hizkera txukuna edo jatorra nola izan litekeen proposatuz. Agian...

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetalde. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
Villabona. Anbulat.: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxi: 67 04 20
▶ Taxi (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Olarreaga, J. M.J. Iraola, 10 (Tolosa), 943 672 438
Gimeno, A. Elbarren, 52 (Leitza), 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoetalde. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. 943 69 19 33.

SALGAI

Soinu ekipoa. Soinu ekipoa osoa salgai. Argibidetarako deitu: 943 67 48 06 edo 943 117738.
Baxua. Baxu elektrikoa salgai. 620 15 65 55.

Etxea. Etxea salgai Tolosako alde zaharrean. 90m2.

Partikularra. 943 67 62 14.

Etxebizitza. Etxebizitza salgai lurren. Pisu baxua, 2 gela, egongela, sukaldaria, altzariz hornitua, komuna eta balkoi handia. 656 78 23 25.

eskertza ▶

eslek hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko hitza.info



Maria Paz Larrea Olano

-ESKER ONAK-

Berriki hil den anderearen familiaren partetik, eskerrak ematen dizkizuegu samina agertu zeniguten guztiei eta hileta elizkizunetara joan zinetenei.

Aldi berean, ABENDUAREN 12AN, 11:00ETAN, LEITZAKO ELIZAN bere omenez ere meza egingo dela jakinarazten dizuegu.

LEITZA, 2004eko abenduaren 11



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Elduain. Ana Belen Egues presoaren urteak direla eta, bihar 16:00etan zorian agurreko argazkian atera nahi dutenak plazan elkartzeko deialdia luzatu dute.

Ibarra. Merkatu Txikirako material bilketa 17:00etatik 20:00etara Parrokian.

Ibarra. Bizi Nahiz jubilatu elkarteak hilaren 21erako irteera antolatu du Donostiara, Santo Tomas egunera. Ondoren Oartzungo Gurutze Berrin bazkaria.

Tolosa. Gaur eta bihar 16:30etik 20:30era Gazte Topagunea dago Kultur Etxean.

Tolosa. Batxilergo Laskorain Ikastolan bukatu zuten ikasleen titulua Orixe Institutuan jaso daitezke. NAN eraman.

Tolosa. Haur Danborradan kantinerak aurkeztu nahi dituzten elkarteek argazkiak eraman Aiz-Orratz Veleta elkartera.

Tolosa. Hilaren 21ean bazkaria eta dantzaldia izango da Harizpe jubilatu elkartearen. Izen-ematea, elkartearen.

Tolosa. Tolosa CF laguntzeko, Eguerrietako loteria (08943 zenbakia) eros dezake Amets, Irrintzi, Egoki, Orue, 66, Saikin, lurre, Oskarbi, Ordizia, Fronton, Triangulo eta Asteasuarran.

Tolosa. Txinparta elkarteko bazkideen urteko batzarra bihar 10:30ean (11:00etan 2. deialdian). Gaien artean, elkartearen 75. urtemuga ospatzeko ekitaldiak izango dira. Bestalde, elkarteko Gabonetako loteria salgai dago bazkideentzat.

Tolosa. Musika eskolako egurra eta metal taldeetako ikasleen kontzertua 19:00etan Gorosabelgo entzutegian.

Tolosaldea. Goiko irrartian (107 FM) *Kornerra* saioa 13:00etan. Harremanetan jartzeko: kornerra@hotmail.com

IKASTAROKAK

Alto. Abenduaren 14ean, 8:00etatik 20:00etara, *Zure finantza erakundearekin eragiketak egin* mintegia KZgunean.

Anoeta. Internet ikastarokak: 13tik 24ra, 11:00etatik 13:00etara; eta abenduaren 27tik 31ra, 9:00etatik 11:00etara. Izen-ematea: KZgunean edo 943 654857.

ERAKUSKETAK

Hernialde. Luis Laskurainen koadroak herriko Ostatuan.

Tolosa. Ana J. Ansorenaren zeramikak Lambroa tabernan.

Tolosa. Anselmo Elizalderen koadroak Fronton kafetegian.

Tolosa. Rufino de Tororon koadroan Sorron denda.

Villabona. Maxola tabernan, Jone Telleriaren margolanak.

GAZTETXEAK

Alegia. 17. urtemuga: Zahagiardoa eta kontzertua: Nunca jama, Inoren ero ni, DJ Waterpartys.

Ibarra. 11. urtemuga: Billar Txapelketa bihar 16:30ean.

Leizta. Topaketa: 17:00etan ongietorria goizuetarrei; 17:30ean jokoak Karrapen; 21:30ean triki-poteoa; 22:00etan afaria Oialden; eta gauerditik aurrera kontzertua Karrapen Exum, Korunba eta Deus taldeen eskutik.

Tolosa. 5. urtemuga: arratsaldean eskalada txapelketa eta May Gorostiagaren bakarrizketak Bonberenean. Bihar 19:00etan zine-klubean *E.T.* filma eskainiko dute.

ZINEMA

Tolosa. *Shall we dance?* (*¿Baillamos?*). 19:30ean eta 22:30ean Leidor zineman.



Gaztain jatea egin zuten atzo Flemingean

VILLABONA ▶ Haur Hezkuntzako Fleming ikastetxean gaztain jatea egin zuten atzo goizean. Egoitza berrian hasi zirenetik, urtero udazkenean egiten dute gaztainaren festa. Aurretik irteera egiten dute inguruetako mendietara, gaztain bila. Gero, fruitua ardatz hartuta, gelan ekitaldi ezberinak egiten dituzte: hostoaren forma, gaztainondoa eta beste zuhaitzak nolakoak diren... Azkenik, danbolinean gaztainak erre eta gero bapo jaten dute haurtxoek. i.g.



Emakumearen egoera munduan zehar

ZIZURKIL ▶ Atzo izan zen Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna. Amnistia Internazionalen argazki erakusketak dago ikusgai egunotan, Atxulondo kultur etxean. *Emakumea munduan* izena du erakusketak eta bertan argazkien bitartez, emakumeak munduan jasaten dituen eskubide urratzeak erakusten dira. Astelehena eta asteartea izango dira erakusketak bisitatzeko azken egunak, 12:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. I. GARCIA

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Asier Zubiria. Gaur 10 urte.
Zorionak aita, ama eta bereziki Enekoen partetik.



URTE ASKOAN
Ibai Agirre (Elduain). Gaur 4 urte. Zorionak familia osoaren partetik, bereziki Aintzaineren partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

